



DOCENTIAZ PROGRAMA
UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren
ebaluazio programa

FASE ESPERIMENTALEKO BOSGARREN DEIALDIA

2014ko iraila

GRADU IKASKETEN ETA BERRIKUNTZAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE ESTUDIOS DE GRADO E INNOVACIÓN

IRAKASLANA EBALUATZEKO ZERBITZUA / SERVICIO DE EVALUACIÓN DOCENTE

1. DEIALDIAREN HELBURUA

DOCENTIAZ programaren bosgarren deialdi esperimentalak UPV/EHUko irakasleen irakaslanaren kalitatea hobetzea eta aintzatestea du helburu, baita informazio fidagarria eta egiaztatua ematen duen irakaslanaren ebaluazio prozedura bat izatea ere.

Horrez gain, aldi esperimentalari esker, UPV/EHUK DOCENTIAZ aplikazio informatikoa hobetu ahal izango du programak behar duen informaziorako sarbidea eta horren tratamendua mekanizatu ahal izateko.

Beraz, programa trebakuntzarako besterik ez da eta irakaskuntzaren kalitatea hobetzea du helburu.

2. DEIALDIRA AURKEZ DAITEZKEENAK

Deialdi hau borondatezkoa da eta programa honetan parte hartzeko ezarritako baldintzak betetzen dituzten UPV/EHUko irakasle eta ikertzaile guztiei zuzenduta dago. Ezin izango dute parte hartu, ordea, aurreko deialdietan parte hartu zuten irakasleek.

a) Karrerako irakasle funtzionarioak eta lan kontratu finkoa edo kontratu egonkorra duten irakasleak (osoak eta agregatuak) eta lankide finkoak:

1. Multzo honetako irakaslea deialdira bildu ahal izateko, ezinbestekoa da UPV/EHUrekin gutxienez bost urteko kontratuzko harremana eduki izatea, eta
2. Denboraldi horretan ondorengo irakaskuntza enkargua egin izatea:
 - 75 kreditu, lanaldi osoan aritzen diren irakasleentzat eta ebaluazio epean inkestagai diren irakasgaien artetik gutxienez %50tan ikasleen iritzia jaso izana kurtso akademiko bakoitzean.
 - 45 kreditu, lanaldi partzialean aritzen diren irakasleentzat eta ebaluazio epean enkestagai diren irakasgaien artetik gutxienez %50tan ikasleen iritzia jaso izana kurtso akademiko bakoitzean.
 - 45 kreditu, kargu akademikoan dihardutelako eskola ematetik salbuetsita dauden irakasleentzat eta ebaluazio epean enkestagai diren irakasgaien artetik gutxienez %50tan ikasleen iritzia jaso izana kurtso akademiko bakoitzean.

Talde honetako irakasleak ebaluatzeko denboraldia GAUR aplikazioan aitorturiko kredituak dituzten azken bost ikasturteei dagokiena izango da -2012/13 ikasturtea izango da kontuan hartuko den azkena-. Eskatutako kredituak ez badira lortzen, ebaluazio epea luzatu egingo da, ezarritako gutxienekoa lortu arte.

Arduraldiz aldatuz gero, gutxienerako irakaskuntza enkargua modu proportzionalen kalkulatu da, ondorengo formularen arabera:

$$\frac{(\text{urteakosoan} * \text{Gutxienerako IZosoan}) + (\text{urteak partzialean} * \text{arguarekin} * \text{Gutxienerako IZ partzialean})}{\text{ebaluazioaldikourteak}}$$

urteakosoan = Arduraldi osoan irakatsi den urte kopurua.

Gutxienerako IZosoan = Arduraldi osoan arituz gero, programak eskatzen duen gutxienerako kreditu kopurua (75).

urteakpartzialean arguarekin = Karguan, edo arduraldi partzialean irakasten, emandako urte kopurua.

GutxienekoIZpartzialean = Arduraldi partzialean arituz gero, edo kargua betez gero, programak eskatzen duen gutxieneko kreditu kopurua (45).

ebaluazioaldikourteak = Ebaluazio aldia osatzen duen urte kopurua.

b) Aldi baterako kontratua duten irakasleak (atxikiak, lankideak, bitarteko lan kontratadunak eta elkartuak):

1. Multzo honetako irakasleek bi baldintza hauek bete behar dituzte: batetik, UPV/EHUrekin gutxienez hiru urteko kontratuzko harremana eduki izatea eta ebaluazio epean inkestagai diren irakasgaien artetik gutxienez %50tan ikasleen iritzia jaso izana kurtso akademiko bakoitzean; eta
2. bestetik, denboraldi horretan 36 kredituko irakaskuntza zama egin izatea gutxienez.

Aldi baterako lan kontratua duten irakasleei ebaluatuko zaien denboraldia (kontratuak irauten duenaren arabera) hiru eta bost ikasturte artekoa izango da, GAUR programak aitorturiko kredituei dagozkien azken ikasturteenak-2012/13 ikasturtea izango da kontuan hartuko den azkena-. Eskatutako kredituak lortzen ez badira, ebaluatu beharreko denboraldia luzatu egingo da, gutxieneko kreditu kopurua lortu arte.

Aldi baterako kontratua duten eta eskaera unean UPV/EHUrekin kontratuzko harremanik ez duten irakasleek DOCENTIAZ programan parte har dezakete, betiere, eskatutako baldintzak betetzen badituzte.

Ez da kontuan hartu goi mailako hezkuntzako beste erakunde batzuetan edo titulu ez ofizialetan (alegia, UPV/EHUko berezko tituluetan) egiten den irakaslan.

3. ESKAEREN AURKEZPENA

Eskaerak **2014ko irailaren 26tik urriaren 17ra, biak barne**, egingo dira UPV/EHUren webguneko DOCENTIAZ atarian. Parte hartu nahi duen irakasleak bere LDAP sartuko du hurrengo helbide informatikoan https://lgpx09.lg.ehu.es/Exp_Docentiazv5.nsf eta aplikazioak programan ezarritako baldintzak betetzen dituen jakinaraziko dio.

Hala bada, jarraian eskabideko datuak aktibatuko dira, eta irakasleak ondorengo autotxostena egiteko irakasgaia aukeratu beharko du. Irakasleak hautatutako irakasgaiari dagokion ikaslearen gida erantsi behar du (alegia, irakasleak ikasleei banatzen dien gida). Hautatutako irakasgaia irakaslearen irakaslanaren adierazgarri izatea gomendatzen da. Irakasgai horrek gutxienez ondorengo baldintzak bete behar ditu:

- Matrikulatuta gutxienez bost ikasle izatea.
- Irakasleak irakasgaiari dagozkion kredituen % 30 ematea gutxienez, eta ehuneko hori gutxienez kreditu bat izatea.
- Ez da kontuan hartuko ondorengoetako irakaslanak: doktoregoa; practicum; karrera, gradu edo master amaierako proiektuak; eta esperientziaren gelak.

Interesatuta dagoen irakasleak oniritzia emango die ebaluazio eskaerako datuei eta hauek, automatikoki, programa informatikoan erregistratuta geratuko dira. Irakaskuntza enkarguan akatsik egonez gero, irakaslea bere sailarekin jarriko da harremanetan, eta kargu edo lizentziengatiko murriztapenaren ingurukoa bada, pertsonala atalarekin. Edozein

kasutan, irakasleak autotxostena betetzen jarrai dezake, datuak behin zuzenduta automatikoki agertuko dira aplikazioan eta.

Irakasleak **2014ko azaroaren 14ra arte** osatu ahal izango du autotxostena. Horretarako, DOCENTIAZ eskuliburuan eta DOCENTIAZ aplikazioaren erabiltzaile eskuliburuan bildutako argibideei jarraituko die.

Autotxostena egiteko aukeratutako irakasgaiko Ikasle Gidarekin egin den eskaera irakaslea atxikita dagoen Ikastegiko Kalitate Batzordeari bidaliko zaio. Ikastegiko Kalitate Batzordeak, edo, hala badagokio, ikastegian DOCENTIAZ txostena egiteko ardura duen batzordeak, telematikoki beteko du txostena, **2014ko abenduaren 12rako** baino lehen.

4. EBALUAZIO PROZESUA

Errektoreak izendatu eta Gobernu Kontseiluak berretsitako Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak (CUED/IEUB) telematikoki kontsultatu ahal izango ditu irakasleek, ikastegietako Kalitate Batzordeak eta ikasleek emandako informazioa biltzen duten espedienteak. CUED/IEUBk gutxienez hiru hilabete izango ditu informazioa aztertzeko eta txostena irakasleari bidaltzeko; hori guztia, datu pertsonalak babesteko printzipioak errespetatuz.

5. AZKEN TXOSTENEN PRESTAKETA ETA ZABALKUNDEA

Irakaslearen amaierako txostenak dimentsioetako bakoitzaren balorazio kuantitatiboa barne hartzen du, baita irakaslearen irakaslanari buruzko amaierako balorazio kualitatiboa ere (hemen, nabarmendu beharreko jardunbideak aipatzen dira). Irakaslearen amaierako txostenak gehienez 120 puntu izango ditu.

- Kontrako ebaluazioa: kontrako ebaluazioa izango da irakaslearen amaierako txostenean **50** puntu baino gutxiago lortzen dituen.
- Aldeko ebaluazioan hiru kategoria sartzen dira:
 1. Ebaluazio onargarria: ebaluazio onargarria izango da irakaslearen amaierako txostenean **50 eta 70** puntu artean lortzen dituen.
 2. Ebaluazio oso ona: ebaluazio oso ona izango da irakaslearen amaierako txostenean **70 baino gehiago eta 90** puntu artean lortzen dituen.
 3. Ebaluazio bikaina: ebaluazio bikaina izango da irakaslearen amaierako txostenean **90** puntu baino gehiago lortzen dituen.

Aldeko ebaluazioa izatekotan, lortutako puntuazioak hurrengo bost urteetan iraungo du, epe hau pasatu ostean, irakasleak aukera izango du bere burua aurkezteko berriro, urte horietako irakaskuntzaren ebaluazioa egiteko. Bestalde, kontrako ebaluazioa izatekotan, irakasleak aukera izango du bere burua aurkezteko, nahiz eta eskatutako bost urte horiek igaro ez.

Ezagutza arloen arabera gehitutako txostenak (batezbestekoa eta desbiderapen tipikoa) SED/IEZren webgunean argitaratuko dira. Ikastegira edo sailera zuzendutako amaierako txostenak, dagozkien arduradunei bidaliko zaizkie. Era berean, amaierako puntuazioa ematen du, dimentsiotan banakatuta. Txosten honek balio instituzional handia du, sail edo ikastegi jakin baten irakaskuntza jarduera bere osotasunean baloratzea eta, azken baten,

irakasleen prestakuntza planei, aitormenei, etab. lotutako erabakiak hartzea ahalbidetzen duelako.

Irakaslana ebaluatzearen arloko errektoreordetza eskudunek (eta hauen zerbitzuek) erabilera konfidentziala duten txosten guztiak jasoko dituzte, ebaluazio prozesuan lortutako emaitzetatik eratorritako erabakiak har ditzaten.

6. ALEGAZIOAK EGITEKO PROZEDURA

Amaierako erabakiari buruz alegazioak aurkezteko, 15 eguneko epea egongo da, irakaslearen amaierako txostena jasotzen den egunetik hasita.

Alegazioak formatu elektronikoan aurkeztuko dira, DOCENTIAZ aplikazioko inprimakiaren bidez; haiekin batera, bidezkoak iruditzen diren agiriak eta ziurtagiriak ere aurkeztu ahal izango dira.

Batzordeak gutxienez hilabeteko epea izango du jasotako alegazioak aztertu eta haien gaineko erabakiak hartzeko eta amaierako txostena prestatzeko.

Amaierako txosten horren kontra gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio UPV/EHUko errektoreari eta honek Berme Batzordeari bidaliko dio.

7. PROGRAMARI BURUZKO INFORMAZIOA

Deialdi honi buruzko informazio guztia Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuko web orrian kontsulta daiteke.